

Hondakin elektronikoko kopurua, urtez urte handituz

2014AN EZARRITAKO hondakin elektronikoko kopuruaren errekorra gainditu zen 2014an: 39,8 milioi tonatik, 41,8ra. Nazio Batuen Unibertsitateak (UNU) egindako azterketaren ondorioz azaleratu dira datuak.

Hondakinen %60 sukaldeko eta komuneko etxe-tresnak izan ziren; telefono eta ordenagailu eramangarriak, berriz, %7 inguru. 2018an 50 milioi tonako kopurua gaindituko dela uste dute ikerlariek. Europako iparraldeko eta erdialdeko estatuek eta AEBek sortzen dute hondakin gehien pertsona-

ko. Kopuru absolutuei dagokienez, nabarmentzekoa da hondakin guztien hiru laurden AEB, Txina, Japonia, Alemania eta Indian eratzten dela.

Kalkulatu da hondakin horietan dauden burdinaren, kobreak eta urreaken balioa, birziklatuz gero, 48.000 milioi eurokoa izan daitekeela. Bestalde, merkurio, kadmio, kromo eta antzeko elementu toxikoen kopurua bi milioi tonatik gorakoa da. ■



GEORGE HOTELLING-CC BY SA

Asteroideen aurkako defentsa prestatzen

NASAKO eta Europako Agentzia Espazialeko ingeniariak Italian elkartu ziren apirillean, Lurraren inguruan dauden meteoroiden eta asteroideen portara aztertu eta arriskua neurtzeko.

Kalkuluen arabera, datozen 100 urteetan Lurraren inguruan dauden milioika gorputzetatik 500 inguru sartu litezke Lurrera. Arriskua txikia da, baina egon badago.

Zer egin, esaterako, 100 metroko diametroa duen asteroide baten aurka? Bi aukera aztertu dituzte ikerlariek: batetik, espazioan oztopoak jartzea, tal-kaz talka haren ibilbidea aldatzeko; bestetik, asteroidean leherketa nuklearra eragitea.

Bata zein bestea zailak dira, gorputz horien abiadura segundoko hamar kilometrotik gorakoa baita. Momentuz, ikerlariek adostutako lehen gauza meteoroiden eta asteroideen ibilbideen jarraipen zehatzagoa egitea izan da. Hipotesi hutsen gainean erabakiak hartzea oso garestia baita. ■



ESA/HUBBLE-CC BY

Argaltzea, bizirik irauteko estrategia

Argaltzea, pertsonen kasuan, osasuna hobetzearekin lotu ohi da; animalia batzuentzat, berriz, biziraupen estrategia da. Adibidez, gabiraiak bizi diren lekuetan, txori txikiak ohi baino argalagoak izaten dira. Hegazti harrapari horiengandik ihes egiteko behar duten bizkortasuna lortzen dute horrela.

ttiki.com/338822

(Euskaraz)

Lebitazio magnetiko bidezko tren baten abiadura errekor berria

Maglev izeneko tren magnetikoak orduko 603 kilometroko abiadurari eutsi dio 10,8 segun-
doz. Asmoa dago 2027rako tren horrek Tokio eta Nagoyaren artean dauden 286 kilometroak 40 minutuan lotzeko. AEBek eta Txinak ez dute lasterketa horretan atzean gelditu nahi.

ttiki.com/338823

(Gaztelaniaz)

Ikusmenaren gaitzen aurkako bide berriak

Adinari lotutako degenerazio makularrak pertsona askori eragiten die. Ematen den tratamenduak ez du balio zenbait pertsonarentzat, eta asko itsu geratzen dira. Ikerlari frantziar batzuek erretinari kalte egiten dion proteina bat aurkitu dute; saguekin egindako esperimentuetan behatu dutenez, proteina horren jardura eteteak erretinaren degenerazioa moteltzen du.

ttiki.com/338824

(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16